

ITXASOAN OHOINTZUN ETA ARRANTZUN *

Itxasoagaz eta itxas-gizakiegaz badira esaundak gure herrietan. Nik, lerro hauen bidez, itxasaldeko lagunei sarri entzundako zenbait sinismen eta elhe-zahar aipa nahi ditut.

Nabarritz

Orain dela hirurogei urte, Bermeo-Gernika'ko ibarrean, *Nabarritz* izeneko gizon bati buruz, ahotan zebilen esaunda bat. Huna nik orduan nere paperetara bildu nuena:

Aldiz-aldi gure artean ere sortzen diran gizaki bitxietako bat ei zan *Nabarritz*. Nabarniz'ko semea bera. Egun batez, behar bada orain dela lareun urte, Bermiora jua ei zan eta han itxasoko ontzik ikusi. Hauetako batean sartu erebai. Mutiko liraina eta kementsua baitzen, hango itxas-gizonak lotu ei zuten eta an bertan atxiki, beren lanbiderako lagun bikaina izan zeikeala-ta. Itxas-lapurrak edo ohoinak baitziren, laster erakutsi ei zioten beren egin-kizun biurria zelakoa zan. Arazo hortan, harat eta hunat munduan

* Honako aldizkari honetatik aterata, *Bermeo*, 1. zenbakia, ok. 353-356, Bermeo: Bermeoko Udala. 1981.

zear ibili ei zan gure mutila: lenengoz behartuta, gero atseginaz luzaro, ohointza onarturik. Itxasoan eta itxasalde askotan gora-bera ugari izan eta gaiztakeriak ausarki egin ondoren, lanbide horri laga-ta —aberats ala arlote, guk ez jakin— zahartzarorako Nabarniz bere sortirrira itzuli ei zan eta gero bertan bizi.

Bainan bere barruak salatzen baitzuan, luzaro erabilitako bere bizikera okerragaz damutu ei zan. Aitorketa bat egin ei zuan Iza-ro'ko elizan. Bere entzunleak, oben-ordaintzat auxa agindu ei zion: *Airamonte*'ko elizañora jua zedilla eta han gau bat otoitzean igaro.

Airamonte Andaluzia'ko itxasaldean dagon mendi bat da eta *Nabarritz* hara jua ei zan bere ordainketa egitera. Mendiaren oiñean dagon ostatuan esan ei zioten, han tontorreko elizara gauaz igotzen zanik etzala itzultzen gehiago. Halaz ere, *Nabarritz* igo. Elizañoan sartu ei zan eta bertan, otoitzean eta bere obenen damua berrituaz, gaua igaro. Gau guztian aizezurrunbilloen zarata izugarriak entzuten ei zituan eliz-inguruan: hildakoenarimak ei ziran han zarataka zebiltzanak: sinismena ei da, bizi dala hara jua ez danak, hilda gero hara jua beharra duala.

Goizean, eguna zabaldu zuanean, *Nabarritz* pozik jetxi ei zan *Airamonte*'tik eta berehala Nabarniz bere herrira itzuli: bere okerrren damua egiazkoa izanen zan noski.

Airamonte'n bezela, ba-da hemen ere esakera, Nabarniz'tik urbil dagon *Ereñusarre* mendiko San Migel'en alizañoagaz. Hunat ere bizi dalarik bakoitza behin edo hiru aldiz juaten ez ba-da, hilda gero jua beharko dala esan ohi da. Horregatik hemen ere gabaz aize-zurrunbillo ikakagarriak ibiltzen ei dira: hildakoak noski.

Sergintzun eta Arrantzun

Zarauz'tik Hendaya'ra bitartean sardina-saltzen ibiltzen ei ziran emakume bi.

Behin, etxera zetortzela, bidean ilunduta, baserri batean atea jo ei zuten, han ostatua gaberako eskatzeko asmoan. Bi ume atera urten: mutil bat eta neska bat.

—*Nun dituzute gurasoak?*— galde emakumeak.

—*Ama sorgintzun eta aita arrantzun*— erantzun umeak. Ama etorri ei zan aurrena, asto baten idurian.

—*Hemen al zan udetu?*— sorginak, sartzean, galde.

—*Bai, bidean ilundu eta hemen sartu gera, gaberako hartzen bagaituzue*— erantzun emakumeak.

—*Bai, bai, apalduta, nahi dezutemean ohera juango zerate*— esan sorginak.

Laster etorri ei zan gizona ere eta danak elkarregaz apaldu ei zuten, eta gero ohera.

Goizean gosaria jan eta ondoren etxekoandre sorginari galde ea ostatua zenbat ordaindu behar zuten.

—*Dirurik ez*—erantzun ei zien— *Zumaya-San Pedro'ko zerroari auxa esan baino:*

*Señora de Galarza,
María de Kuteperrea,
Txintxin Kalabera,
Erranen duela,
Bart Akelarren
Eman duen gaba
Gogoan izango duela.*

Handik bi emakumeak urtenda, mendiz-mendi ei zijozten, eta *Mendizorrotz* gañean zumayar batzuek ikusi eta beai esan, Zumaya-San Pedro'ko zeroriarentzat ba-zutela mezu bat.

— Hori bart arratzian sorginak eskailpera bota ei dute eta bertan hilda gelditua da, erantzun ei zien zumayarrak. Mezua han amaitu ei zan.

Hiru uranbillak

Arakistain (Juan V.) izeneko idazleak, 1866n urtean argitarazi zuan *Tradiciones vasco-cántabras* dalazko liburua eta bertan *Las tres olas* deritzon ipui bat. Sorginak, olatu edo uranbil bihurtuak, aipatzen ditu berak eta esan legike uranbil horiek *Draganarru* edo aize-zurrunbilloak gora daraman urketa baino bildurgarriagoak zirala. Ipui horren gaiak ageri dira Bermio'n eta Azkoi-

tia'n, 1921n urtean bildu nituan esaunda bitan.

Huna emen lenengoa: Behin Bermio'ko txalupe batzuk sartu ei zien arribadan Elantsobe'ko portuen. Agure bat juen ei zan gaue-rako bere errumera lo eittea. Halako baten gonagorridun andra bi etorri ei zien. Askatu sokak eta asi ei zien abantien eta «a cada paso cien leguas» esaten eta Habana'ra heldu ei zien. Orduan herrire saltau ei euen andra bijok. Aguriek be salta ta Habana'ko arbola bateri adarra kendu eta txalupara itzuli. Etorri ei zien noix edo noix andrak ere eta asi ei zien oster a be abantien, eta goxaldie baño lenau heldu ei zien Elantsobe'ra. Aguriek geu hatan Habana'n egon zela lagunei zineztueraiteko, hango arbolien adar ezie erakuste ei eban.

Una emen bigarrena: Zorgin batzuek arrantzale-etxe bateko gorroto aundia omen eta heurek galtzea erabaki omen zuten. Hiru zorgin omen ziran etahiruek uin edo olatu itxasoan biurtu eta arrantzale horien txalupa gogorki astindu. Arrantzaleak ordean arrankazi bat sartu olatu aundienari eta zorgiña ia hillean gelditu eta ez omentzan gero burrukarik izan (1).

Buenos Aires'etan gau batez

Zuberu-Liginaga'ko nere berri-emaile Aroztegivar (Margari-ta) andereak, beste ipui askoren artean, hauxe esan ziran: Nere aita zena Borde-andetan ikatzegile-nausi zen. Bazutian zazpi mutil. Gau batez bat etzan itzuli; biharamunian, bai. Nausiak esan zion: — bart nun egon aiz?— Buenos-Aires'etan —berak erran—. Ilhundu betzaitan, bato batetan sartu nintzan; neskabila bi, *belagile* edo sorgin, etorri, batak erran «behin parti, berritan parti, arri diable»; bainan etzan partitu. Orduan bertzeari erran zion: «hi haur espantxatan ago, hemen ba-gaitun hiru». —«Ez naun ni hala, erorri ago hala»— bertzeak.

Orduan belagile harek: «behin parti, berritan parti, hiruetan parti, arri diable». Berehala batoa juan zen eta Buenos-Aires'etan gelditu. Orduan hirten nintzen, sorginak ohartu gabe, eta zerbait

(1) Ikus nere Obras Completas II, 74 - 78 horrialdeak.

ibili; gaur itzuli batoan, juan nintzen bezala (2). *Hori halan bazan sartu dadila kalabazan, ta urten Derio'ko plazan.*

Ataun'dik, 1981-ko jorraitharen 30n.

(2) Ikus nere O. C. IV, 219 herrialdea.

MURUMENDI ESAUNDAFTAN *

Urrun ikusten ditudan garai gogoangarriak dira neretzat 1916 eta 1917 garrengo urteak.

Aldi hartan, gure aran eta mendietan zear, euskal lehen-gizakiak eta hauen bizikerak eta ezikera ikasten asia bainintzan.

Gure Goiherri hontako lurraldeak bereziki nere gogoko nituan. Hauetarik Beasain'go Muru edo Murumendi eta Aralar'go Alotza batez ere hemen aipa nahi nituzke.

Muru, ia 900 metroz itxasotik gora dagon tontor bat da. Ba dira han, goien eta oinean, harpe eta leizeak.

Esaunda batzuek adierazten digutenez, zulo haietako batetik askotan irten ohi omen da irelu bildurgarri bat —Suga-arra— eta, sua dariola, odei-gainen zear juaten beste mendi batzuetako sugaarzuloetara. Lope Garcia de Salazar idazkariak, XV garren gizaaldian zionez, Suga-arra izan omentzan Jaun Zuria, Bizkai'ko lenengo jaunaren aita.

Baita esan ohi dute hemen, inguruko herrietan, Muru'ko harpe hortan agertzen dala beste irelu aipatu bat Mari edo Marimundu-

* Honako jaietako eskuegitarautek aterata: *Beasain Fiestas Jaietan*, ok. 6-7, Beasain, 1981.